

MATTURINAREN GAFOINAK

Ager-tokia: merkatuko xoko bat, karrika edo bide ezkina bat

I

Mariena eta Margaita sartzen ari direla.

MARGAITA: Nola hantua zaukun Maturina hori?... Nola nor-girakutua den!...

MARIENA: Maturina?... Nongo Maturina?

MARGAITA: Ezagutzen ahal duzu!... Handibideko Maturina, Tomas konkor zenaren emaztea...

MARIENA: Zer emazte ahul ezdeus hura?... Doidoi hiru antzara mainguen zaintzeko on zen emazte hura?

MARGAITA: Hura eta bera! Duela zombait hilabete ahaide mitxurdirin xahar batek utzi diozka zituen guziak —ehun mila libera diotenaz— eta geroztik gure Maturina gizagaizoak uste du munduan ez dela bera baino buru erneagorik eta abilagorik...

MARIENA: Hainbertzetaraino ba!

MARGAITA: Hortan geldi balitz oraino! Jende xehearen trufan baizik ez du onik gehiago...

MARIENA: Nortaz trufatu da hola?...

MARGAITA: Denetaz!... Azken azkenik nitaz...

MARIENA: Hortaratu baitguk dudarik gabe zuhauk!

MARGAITA: Ez eta hais ere!

MARIENA: Non noiz ikusi duzu bada?

MARGAITA: Ostian horxet... Okindegiko athe-antzinean jarririk zagola, bi gaphoin otharre baten barnean... Bi oren ibili ondoan karrikaz karrika bere gaphoinak saldu beharrez eta ezin salduz, horxet gelditua da... Badakizu zombait galdetu dautan nere bi gaphoinarentzat?...

MARIENA: Jainkoak daki?...

MARGAITA: Lauetan hogoi libera!

MARIENA: Debrientxoa! Ez da guti gose gura Maturina... Lauetan hogoin libera bi gaphoin!... Denak kario dire, bainan halarik ere...

MARGAITA: Erosi nahi niozkan, emaitza pollit plantako bat nahi bainioke egin norbaiti... Bainan laueta hogoin libera!... Ez baikire ba aberatsak. Nere moltsaren meneko bertze zerbait atxemaan beharko...

MARIENA: Zertan trufatu zaitu ordean?

MARGAITA: Eskuetan hartu ditut beraz haren gaphoinak, haztatu behar nituela. Ez dakizu zer athera dautan ber moko mehetik, halako irri trufa batekin. Lauetan hogoi libera, gaixoa... arditik ez gutiago... gaphoinak dire gero. Bertzela ez zu bezalako aho urruntek ez dute gaphoinik jaten!... Ematzarra! Bihotza tapatu zaut eta urrundu niz tutik erran gabe, ahalgetua...

MARIENA: Emazte biguina!... Zaude zaude... Auzia ez dauka ez oraino irabazirik... Handian nausitu zautzu, bainan orai ikusiko jokoan nausituko zaukunetz... To hain xuxen orra non heldu diren hanxet Franxiska... Dominika eta Kattalin... Holako lagunekin hogoi-ta hameka eta esku dugu... Goazen heien ganat eta nik errana nahi balin badute egin, uste dut gure Maturinak... To behazu!... Bai, bai... laster, goazen laster, ez gaitu elgarrekin ikusi behar...

II

(Maturina bakarrik)

(Besotik dilindan otharre bat bere gaphoinekin, beso pean parasola handi bat, bertze eskuan kadera bat... Kadera pausaturik jartzen da otharrea bere aitzinean)

Ai! ei! ai! Oren bat karrikaz karrika holako otharre pizua besoetan, akitzten dela gero jendea... Bederatzi orenak eta nehor ez dela ageri oraino!... zer auherrak karrikako jende hoik!... Ez arima bat ez gatu bat... Hanbat gaixto!... gauden beha... ez othe da hobe goizegi ethortzea berantegi baino? Xo norbeit heLdu...

III

FRANTXISKA: Bazauda beraz!

MATTURINA: Bai, zu ere ibilki!

FRANTXISKA: *(otharreari ohartuz)* Ihizi ederrak ditugu hor?

MATTURINA: Uste nuke... batere espanturik gabe urrun joan behar ziniztake aderragoen kausitzeko. Ez dute iduri, bainan hazta zaitzu hauk... Hamar libera pizu dituzte...

FRANTXISKA: *(harritua bezela, bainan gaphoinak Matturinarene eskuetari artu gabe)* Errazu berriz!... Nere uztez ez dut ontsa aditu...

MATTURINA: Erran dautzut hamar libera pizu dituztala goiz huntan pizatu!...

FRANTXISKA: Astapr baxotxean harri bat emanik dudarik gabe... horrieder bat.

MATTURINA: *(Kexatzen ari dela)* Zer diozu? Oraikoan nik dut ez ongi aditu...

FRANTXISKA: Etzaitela khexa, ernazte gaixoa... mintza gaiten polliki. Ez dut erraiten ez direla ederrak, gezurra nuke... bai ederrak dira, ezin ederragoak. Eta bartz liberetan nahi badaizkidatzu utzi... Ori zu zirelakotz eta denborarik ez galtzeko emaiten dauskizut bartz libera eta bartz sos. Erran bezela beraz, bartz libera eta bartz sos eta eremaiten ditut. *(Gaphoinen hartzerat doa)*

MATTURINA: *(Khexu kexua)* Irri gose balin bazira edo jendeaz trufatu nahi merkatua da egun eta jende hanitz kausituko duzu xerriportuan... Ai! ageri duzu ez nuzula ezagutzen, Handibideko Matturina ez duzula ezagutzen... Ezagutzen nuttenek erranen dautzute ez nizala zozoa ez eta phikaren azken umea... Zoazi bixtatik... Behazue hunen kopeta!... Bartz libera eta bartz sos gaphoin pare bat, ditazke gaphoin ederrenak... Sei ilabetheko xerri baten bazka behar bainuen kasik hoinen bazkatzeko!...

FRANTXISKA: *(Luzaz behatzen diola begitarte ponatu batekin)* Oi jainko maite maitea!... Emazte gaixo gaixoa!...

MATTURINA: *(gero-ta khexuago)* Zer derasagu hor emazte gaixoka!...

FRANTXISKA: Zin zinek urrikari zaitut, bai untza urrikari...

MATTURINA: Ez du balio!... Jainkoari esker badut osagarria bai eta nere lanetik egin eta xalde bat joria... Ikusten duzu ez nizala urrikaltzekoa.

FRANTXISKA: Bainan, emazte dohakabea, zure osagarriak eta etxaldeak ez dute deus egitekorik huntan... Erraiterat borxatzen nuzunaz geroz;... hanbat gaixto, erranen dautzu...

MATTURINA: Errazu bada...

FRANTXISKA: Barkatu, bainan edo itzua gira... edo... edo burutik joana... *(Alegia khexu)* Beha zazu, dohakabea, beha zazu baña... Gaphoinak dira ihizi hoik?... Errazu gaphoinak dire?... Ez da haratik ez hunatik, itsua zira segur...

MATTURINA: Ni itsua!... Ez, jainkoari esker begi onak ditut oraino... Bainan zure arabera zer dut bada nik otharre hortan?

FRANTXISKA: Zer duzun otharrean... Ez duzu ikusten uso pare bat duzula hor. Urso ederrak, gixenak, baina ursoak eta ez gaphoinak... Eta iduritzen zitzautan bartz libera bartz sos...

MATTURINA: Aski!... Aski!... Egia zinion ostian, emazte gaixoa: bada hemen itsu bat, itsua zu

zira... (*gerota gorago mintzo dela*)... Ursoak?... ursoak nere gaphoinak?... Ha! ha! ha! utz nezazu irri egiterat... Eta kontseiluño bat nahi balin baduzu nik emanik, zure borts libera eta borts sosekin zoazi laster luneta pare baten erostrarat...

IV

(*Matturina mintzo delarik oraino ethorri da Dominika*)

DOMINIKA: Zer da kalapita hau?... Zer duzue biek hola oihuka? (*Matturina ezagutzen duela*) To! zu Matturina hemen?... Goizik ethorria zira merkaturat... (*Otharreari beha*) Zer uso ederrak dituzun hor!... Saltsako dituzu?... Azken merkatuan izigarri kario ziren... Segur niz batere gezurik gabe, borts liberetan edo beharbada sei atxemanen duzula erosle.

MATTURINA: Niri burua zozo-arzi beharrez ari zaitze naski biak... (*Dominikari*) Zer derasazu zuk ere?... Oraixe emazte huni niona ez balin baduzu ontsa ikusten, emaitzu lunetak... Beha zazue bada ihizi hoier...

DOMINIKA eta FRANTXISKA: (*Batean*) IkuSten ditugu, ikusten...

MATTURINA: Eta beraz?;

DOMINIKA: Ederrak dira, ez da erraiteko (*gaphoinak hautatzen ditu, otharrean daudelarik*)... Egia erran ez dituzu goizean bihiz hanpatuak pizuarren emendatzeko... Bapoa hutza dute... hara ere bai... eta (*gaphoinak eskuetan hartzen dituela*)... bai, iduritzen zitzautan bai, begiez hastatuak nintuen jadanik... pizu dituzte bi libera segurik...

MATTURINA: (*gorri gorria klhexu*) Bi libera? Burutik baduzu? Hamar libera pizu dituzte goizean pizatuak... zoazte biak antzarra pherratzerat... Zuen ursoekin astaña-araziko nuzue...

DOMINIKA: Ez khexa othoi Matturina... Ez du balio oihuka artzea... Zure oihuak bilduko dute jendea hunat... eta ezagutzen etzaituztenek, zure oihuak entzutearekni, usteko lukete...

MATTURINA: Zer usteko lukete?

DOMINIKA: Jendeak entzuten balin bazaituzte zure ursoak gaphoinak direla erraiten, usteko dute xortaño bat sobera edana duzula...

MATTURINA: Mozkorra nizala?

DOMINIKA: Hala erran bezakete segur!

MATTURINA: (*kexuarekin gorri-belztua*) Mozkorra?... Ni mozkorra!... Tripa hutsa oraino eta ni mozkorra!... Sekulan urik baizik ez edaten eta ni mozkorra!...

DOMINIKA: Ixo!... Ixo!... Matturina... Hola oihuka artzeak egarri emaiten du... eta... ikus arte... agian ontsa salduko dituzu zure urso-gaphoinak... (*Dominika eta Frantxiska atheratzen dira*)

V

(*Matturina jartzen da, gaphoinak bere aintzinean burua apha!... ixilik dagor aphur bat, gogoetatua!*)

MATTURINA: Ez ditakena da hori!... Norbaitek xarmatua segur... Sorginkerria edo debrukerria zerbait bada hor!... Bainan debruak nahi ala ez nahi, ez ditut ursoak ekarri nik etxetik! Ez ez! Non hartuko nintuen nik ursoak?... Ez dugu eta ursorik ez ursotegirik ere... (*sakelak ikerturik, luneta pare bat atheratzen du, ezartzen eta othar altzoan emanik*).

Ursoak hauk!... Sekulan ere santan ursoak izan ere... Marra gorri hor, buruaren erdian, nihauk mostu kukurastarren marra... Eta behatz hoik aztapar azkar

hoik!... Luma luze hoik... Nehork ikusi du behin ere holako bustan ederreko ursorik?... Ez nago lo bederen!... Ez naiz ametsetarik ari!...
(*Gaphoinak hartzen ditu eta eskuan dauzkala besoak luzaturik*)...
Emazte enphoilak!... Bi libera dituztela pizu! Bi libera eta doi-doia atxikitzen ditut besoan... (*Besoa aphaltzen duela*) Ouf!... Ai! zorigaitza! Bai zinez debrukeria zerbait bada hor... Gaphoin hauk ursoak direla bi emazte hoiek erraiteko, zerbait sorgin behar da...(*Urratz bat aditurik burua itzultzen du*) To! huna Kattalin, hau ez da emazte hitz untzi haietarik... Niri erosten dauzkit arroltzeak merkatu guzietan... Nehork erraitekotz hunek erranen daut egia...

VI

(*Kattalinekin egiten ditu zombait urrats, gelditzekoa ez balitz bezala...*)

MATTURINA: (*irriño batekin*) Adio Kattalin... Zer! Gisa hortan bazoaz hitzik erran gabe!... Ez nuzu bada ezagutu?

KATTALIN: Nork etzaitu ezagutzen, Maturina,... Bainan barkatu egungotz... ez dut elheketa egoiteko aizinarik...

MATTURINA: Minutaño bat Kattalin.... Eian! beha zadazu ontsa!

KATTALIN: Zuri beha?... Zer mirakulu duzu bada?

MATTURINA: Handibideko Kattalina niz ni?...

KATTALIN: Dударик baduzu!... Segur Handibideko Maturina zirela... Bainan berriz ere barkatu... joan beharra niz... Uste gabean ethorri zaizkit hamar bat bazkaltiar, hamar bat hagin zorrotzak, eta oraino ez du dupina baizik suan... To!... ori orhoitzen bainiz, ohartu zira Olhagaineiko Katixa ethorria denaz merkaturat?... Zer gerta ere baniozkan bi gaphoin galduak joan den astean... Ikusi behar dut ekharri dituenetz... Erraki hanitz beharko dutela gero nere hamar bazkaltiarrek... Eguerdiko nahi badut nere bazkaria aphaindu, nere gaphoinen hiltzeko, lumatzeko eta gerrenean ezartzeko ordu dut...

MATTURINA: Eta... gaphoinak nahi zinituzke?

KATTALIN: Hoik?... Ursoak!... ontsa ederrak, ontsa gizenak... Hamar bazkaltiarrentzat gutixko baitire... Berriz arte Maturina, hartze egun batez eginen dugu tratu... (*Badoa Kattalin*)

VII

Maturina bakarrik

Oi! zeruko ama ona! Nizan bezalako dohagabea!... Gaixo; ni!... gaixo ni!... Gizagaixo ni!... Ha! ikusten dut oraikoan, sorgindu nute... Binaki bederen nork!... Zer egin, Jainko maitea... Zer egun tzarra hau!... (*berriz ikertzen dituela bore gaphoinak*)... Ala edo bai eta nazki egia diote bertzeek... Nere gapihoinak... Batere ez dakitenez gero!... Orain hobeki behatzearekin, iduritzen zaut ez direla nik goizean ekharri hek... eta ursoak direla... Denek hala diote eta bethidanik sei begiek biek baino hobeki ikusten... Debruak nerernala etxerat itzultzen balin baditut nik ihizi sorgin hauk... Ez nahiago ditut hemen berean libratu... doazila nahuten tokirat...

VIII

(*Maturina sokaren mozterat doalarik bere gaphoinen libratzeko, ethorri da Margarita*)

MARGARITA: Zer! oraino hor!... Ez dituzu salduak?... Eta khexu hura joan zautzu azkenean?...

MATTURINA: Ez nintzan khexu!

MARGARITA: Ostion bazinuen haatik zerbait, errazu!... (*Matturina bezala mintzo dela*)... Gaphoinak ez dira pobren ahoarentzat!... Orhoit zira!... Zer johan zautzu, eroslea izan dadin pobrea ala aberatsa, pagatzen balin bazaitu... Gure sosak ez othe du aberatsaren sosa balio?... Ikusten duzu ez nizala thematsua... berriz heldu niz... Eian!... kalapitarik gabe, zonbat nahuzu zure ursoentzat?

MATTURINA: (*Umilki*) Bortz libera eta bortz sos ukaiten nintuen ostion... Sei libera eginen ahalko nintuela eran dautete???...

MARGARITA: Orizu beraz zure sei liberakoa...

MATTURINA: Milesker!... Eta ez adiorik... (*Dirua sakelan emanik, kadera, otharrea eta parasola harturik, badoa bixi bixia*)

IX

MARGARITA: Laster badoanetz!... Behazue, behazue... Uste du bai naski zerbait sorgin baduela ondotik... (*Gaphoinak erakutsiz*). Zer gaphoin ederrak!... Sei liberetan ez dire kario!... (*Oihu egiten duela bere lagunerari*) Hou!... zatozte!... (*heldu dire bertzeak*)... Sakuan sarthu dugunetz gure Matturina!...

MARIENA: Zuk errazu!...

DOMINIKA: Bere ahaide xaharrak utzi diruak ez du hainbatu abildu!...

KATTALIN: Izaitekotz ere hak khendu dio azken phirua...

KATTALIN: Eta zoin ederrak diren haren gaphoinak!...

MARIENA: Ez ditu saldu nahi bezain zalu oraino!... Tratua laster egin dugu!...

KATTALIN: Orhoituko ahal da luzaz guk eman erakaspenez, pixka bat hobetzeko..

KATTALIN: Bai, eman diogu erakaspenez eder bat... bainan ez baitugu gurea ez dena atxiki nahi... Behazue nola doan den hanxet bizkarra makurtua... Egin dezogun oihu...

GUZIEK: Matturina!... Matturina!...

MATTURINA: (*Urrunetik*) Zer da?

MARIENA: Zato zure gaphoinen bilha...

MATTURINA: (*Toki beretik*) Tratua tratu!... Akabo!... Akabo!...

MARIENA: Bainan, emazte xoroa; gaphoinak direla!

GUZIEK: Gaphoinak ba!...

MATTURINA: Hobe; hobe segur!... On daikezuela!...

MARIENA: To!... horra pollitena!

L. LEON